



2018ko BARDINTASUN PLANAREN BALANTZEA

ETA



2019ko BARDINTASUN PROGRAMEA



**Bediako
Udala**



**Arratiako
Udalen
Mankomunitatea**


BARDINTASUN ARLOA
ÁREA DE IGUALDAD



Bedia 2015. urtean sartu zan **BERDINSAREAn**, *Bardintasunaren aldeko eta Emakumeakanako Indarkeriaren kontrako Euskadiko Udalerrien Sarean*. Sarearen helburua da tokiko gobernuek bardintasunaren alde eta emakumeakanako indarkeriaren kontra kudeatutako programa eta zerbitzuak sustatu, indartu, koordinatu eta ebaluetea. **2018an, Bedia modu aktiboan hartu dau parte sarean.**

BERDINBIDEANegaz be egiten dau lan, *Emakume eta Gizonen arteko Bardintasunaren arloan udalerrri txikiei Aholku Emoteko Zerbitzua*.

2017. urtean hasi zan **Bedian Emakume eta Gizonen arteko Bardintasunerako II. Plana** garatzen, Bizkaiko Emakume eta Gizonen arteko Bardintasunerako V. Foru Planagaz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen arteko Bardintasunerako VI. Planagaz batera.



2018ko MEMORIA

Bediako Udalaren bardintasun politikeak eta 2018an egindako jarduerak marketan dituen jarduera eremuak eta ildo estrategikoak dira honakoak:

1.

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BARDINTASUNERA ZUZENDUTAKO GOBERNANTZEA

Eskubide bardintasunak ez dau aukera bardintasuna bermatzen, ezta izatezko bardintasuna be.

Desbardintasunen aurrean oztopoak gainditu eta jarrera propositiboa eukitea beharrezkoa da. Horregaz guztiagaz, **Bediako Udalaren helburua da kontratueta eta dirulaguntza publikoetan bardintasun printzipioa eraginkortasunez integretea.** Horretarako, oinarritzko printzipio bitan oinarrituko gara: ekintza positiboa eta transbersalidatea.

2018an **jarraikortasuna emon jako Bardintasun Mahaiari.** Mahai horretatik eta Alkatetzaren, Bardintasun Zinegotzigoaren eta kultura eta bardintasun teknikarien parte-hartzeagaz, bardintasun politikak koordinatu eta planifikatu dira.

Mahai horretatik, 2018an **dirulaguntza publikoetan bardintasun klausulak sartzeko** prozesua jarri zan martxan. Neurri hori 2019an amaitzea aurreikusten da.

2.

BALIO ALDAKETEAK ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Arratiako Emakumeak Ahalduntzeko Eskolea

Helburua emakumeen formazioa eta parte-hartze publikoa handitzea eta indartzea da, gizartearen eraldaketan eragile aktiboak izan daitezana.

Zemendiaren 16, 17 eta 18an **ACTIVA TU VOZ** ikastaroa egin zan, Zahira Montalbo Herrero irakasleagaz. **15 emakumek hartu eben parte**, eta hiru egunez modu kolektiboan ahotsaren erabilera eta bildurrak apurtzeko eta ahotsa modu osasuntsuan aterateko tresnak landu zituen. Gainera, Eskolako programazioaren gainontzeko ikastaroak zabaldu dira.

Balorazioa oso positiboa izan da, bai parte-hartzaileen aldetik, bai hezitzaileen aldetik be. Datorren urtean ildo bera lantzen jarraituko da, eta emakumeak ahalduntzeko ikastaroak antolatzen jarraitzearen aldeko apustua egin da.

Sensibilizazio kanpainak:

Herritarrak bardintasunaren eta aniztasuna errespetetearen alde sensibilizetako asmoagaz, Bediako Udala, Mankomunitadeko gainontzeko udalakaz eta asoziazino ehunagaz (Arratiako talde feministak eta emakumeen alkarteak) batera, hainbat jardueraz osotutako kanpainak sortzen eta sensibilizazio eta konzientziazino mezuak zabaltzen dabilz.

martiak

8

EMAKUMEEN NAZINOARTEKO EGUNA

maiatzak

17

HOMOFOBIAREN ETA TRANSFOBIAREN KONTRAKO NAZINOARTEKO EGUNA

bagilak

28

SEXU ASKAPENAREN NAZINOARTEKO EGUNA





3.

GIZARTE ANTOLAKETAN ERANTZUKIZUN PARTEKATUA

Ilido estrategiko honetan ez da ekintza adierazgarririk egin.

4.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

Jaietako informazio eta prebenzino puntuak, indarkeria sexistari eta konsumoari lotutakoak

Jaiak indarkeria sexista eta drogen konsumoa moduko arrisku faktoreak lantzeko une egokia dira.

Gazteei indarkeria sexistari eta konsumoari buruzko informazioa emoteko eta sensibilizetako asmoagaz, bagilaren 23an informazio puntu jarri zan, gai bietan formazioa daukien profesional bigaz eta informazio materialagaz.

Sensibilizazio kanpainak:

zemendiak

25

**EMAKUMEEN KONTRAKO
INDARKERIAREN AURKAKO
NAZINOARTEKO EGUNA**

Arratian emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako baliabideen gaineko informazioa zabaltzea

Helburua informazioa eta baliabideak transmitidutea da, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko. Bedian gidak banatu dira, eta herriko leku batzutan jarri dira.

2019ko BARDINTASUN PROGRAMEA

2018ko ekintzen ebaluazinoa egin ondoren, aurretik azaldu dogun lez, honeek izango dira 2019ko jarduera eremuak:

1.

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BARDINTASUNERA ZUZENDUTAKO GOBERNANTZEA

Kontratuetan eta dirulaguntza publikoetan bardintasun klausulak sartu gizarteari helarazo gura jakon bardintasun mezua legitimetako tresna lez, eta herritarrak ildo horretan behar egitera animau.

2.

BALIO ALDAKETEA ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Arratiako Emakumeak Ahalduntzeko Eskolea

Arratiako Emakumeak Ahalduntzeko Eskolan modu aktiboan parte hartzen jarraitu, urtean behin, behintzat, tailer bat eginez eta gainontzeko Eskolen programazinoa zabalduz.

Bedian emakumeen sareak sortu

Bediako emakumeek bizitza publikoan parte hartzea sustatzeko helburuagaz, Bediako emakumeen arteko **topaketa espazioak** sortu:

- Emakumeen urteera Zugarramurdira
- Berbaldia: emakumeak euskal historian

Sensibilizazio kanpainak:

maiatzak
17

HOMOFIARIAREN ETA TRANSFIARIAREN AURKAKO NAZINOARTEKO EGUNA

Kanpainaren mezua zabaldu formatu digitaletan

martiak

8

EMAKUMEEN NAZINOARTEKO EGUNA

Emakumei, Kirolari eta Euskereari buruzko mahai-ingurua

bagilak

28

SEXU ASKAPENAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Kanpainaren mezua zabaldu formatu digitaletan

3.

GIZARTE ANTOLAKETAN ERANTZUKIZUN PARTEKATUA

Erantzukizun partekatuari buruzko konzieniazino kanpaina: Gizonak bardintasunaren aldeko apustuan eta konpromisoan animetako helburua dauka.

4.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

- **Erantzunkidetasunari buruzko konzieniazino kanpaina:** bardintasu-naren aldeko apustuan eta konpromisoan gizonetzkoak animetako helburuagaz.
- **Jaietako informazino eta prebenzino puntuak,** indarkeria sexistari eta konsumoari lotuta.

Sensibilizazino kanpainak:

emendiak

25

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZINOARTEKO EGUNA

Familia antzerkia: Mari eta Gaileta Fabrika.

Mari eta gaileta fabrika antzezlanaren egungo emakumeei bidea zabaldu deuten emakume langileen lanari egin-dako omenaldia da.

Arratian emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako baliabideen gaineko informazinoaz zabaltea

Emakumeen aurkako indarkeria jasaten badozu, edo jasaten dauan nonor ezagutzen badozu, lagundu egingo zaitugu. Deitu, eta eskatu hitzordua: **Gizarte Zerbitzuakaz edo Zutitu**, asistentzia psikologikoko zerbitzuagaz. Zerbitzu honek anonimoak eta doakoak dira. **94 631 17 17.**

Beldur Barik Arratia
Programa

Beldur Barik gazteen artean indarkeria sexistaren prebenzinoarako sensibilizazino jardueraz eta bideo-lehiaketaz batez osotutako programea da, eta helburua gazteak batera gogoetak eta eztabaidak sustatzea da, gizartearen transformazinoan laguntzeko.



Gogoratu!!

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

bizi badozu edo bizi duenik
ezagutzen badozu,

LAGUNDU GEINKEZU

GIZARTE ZERBITZUAK



Profesional
espezializatu
batek artatuko
zaitu, **dituzun**
zalantza guztiei
erantzuna
emoteko.

Aholku eta
orientabideak
jasoko dituzu
beharrezkoak
erabakiak
hartzeko.

Informazioa
jasoko duzu
bestelako
laguntzei buruz:
ekonomikoak,
tramite
juridikoak.



Beste zerbitzuetara
eta **deribazioa**
laguntza:
Jabekuntza Eskola,
Lanbide, Osasun
Zentroa...

Larrialdiak **112**

94 631 17 17

24 ordukoa esta anonimoa

900 840 111

ASISTENTZIA PSIKOLGIKOA

Profesional
espezializatu
batek artatuko
zaitu, **laguntza**
psikologikoa.



Hartu hitzordua
zuzenean.
Inolako aurretiko
tramitaziorik
gabe.



Zure erritmoak
errespetatuko
dituen **arreta**
pertsonalizatua
jasoko duzu.

Indarkeria mota
ezberdinen
ondorioak artatuko
dira, iraganekoak
zein gaur
egunkoak.

DEITU

KONFIDENTZIALAK
DEBALDEKOAK



Arratiako
Udalen
Mankomunitatea

BARDINTASUN ARLOA
ÁREA DE IGUALDAD